

## Diru-laguntzak eta akonpainamendu soziala ingurune irekian, moldagabezia sozialean dauden pertsonentzat.

**Prestazio mota:** Bermatua.

**Baliabide mota:** Arreta anbulatorioko zerbitzua eta diru-laguntzak.

**Baliabidearen xedea:** Baliabide ekonomikoak eman eta baliabide pertsonalen garapena bultzatzea ingurune irekiko akonpainamendu sozialaren bitartez, ingurune normalizatuan gelditzea ziurtatzeko eta instituzio baten babespean zentro batean sartzea saihesteko.

**Onuradunak:** Abenduaren 19ko 256/1984 Foru Dekretuaren babesean dauden helduak, ingurune irekian funtzionamendu autonomoa izateko gaitasuna dutenak eta moldagabezia sozialean daudenak.

**Jasotzeko baldintzak:**

- Moldagabezia sozialaren egoeran egotea.
- Diru-laguntza akonpainamendu soziala onartzearen mende egonen da.

**Zerbitzua irekita:** Urteko lan egun guztietan, astelehenetik ostiralera.

### Zerbitzuaren intentsitatea:

- Oinarrizko beharrak atzematea.
  - Akonpainamendu soziala, esku-hartze arloen arabera lehenetsia.
  - Laneratzeko eta lanerako gaitasuna bereganatzeko orientazioa eta sostengua.
  - Diru-laguntza pertsonaren bizi-garapenerako egokia izanen da, bere diru-sarreraren eta beharren arabera, besteak beste honako kontzeptu hauetarako: ostalua (gehienez ere hileko LGSaren % 0,8), mantenua (gehienez ere hileko LGSaren %0,45), gastu pertsonalak (gehienez ere hileko LGSaren %0,25).
- Laguntzen gehieneko kopurua banakakoaren beharrek ezarriko dute, betiere behar den gasturen %100etik behera.

**Emateko epea:** Berrogeita bost egun.

**Jarduteko eremua:**  
Nafarroako Foru Komunitatea.



---

---

---

---

---

---

---

---